

UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBA (A eredua)
EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (A aukera)
2007/2008 IKASTAROA

ARGIBIDEAK:

Proposatzen diren bi azterketa hauetatik (A eta B) bat aukeratu eta galdera guztiak egin.

Galdera bakoitzaren bukaeran, lor daitekeen puntuazio gorena adierazten da.

Mendiz, basoz eta zelaiz jositako gure Euskal Herri honetan, landareek garrantzi handia izan *dute* beti, baita eragina ere euskaldunon ohitura eta sinismenetan.

Zuhaitzetan haritza berezia izan da beti euskaldunontzat, baina ba al *zenekien* haritza sendabide gisa ere erabiltzen zela? Bada, Donibane bezperan, gauerdian, etenak jotako haurra haritz batera eramaten zuten Joan izeneko bi gizonek. Adarrak **zabaltzen** ziren tokiraino igo eta, hamabiak jotzean, batak besteari ematen zion haurra esanez: <<Joanek uzten *zaitu*, Joanek hartzen *zaitu*>>.

Donibane egunean, bestalde, elorri zuriaren adarrak jartzen ziren etxe **atariaren** ondoan edo hormetan, etxea tximistetatik babesteko. Zenbait tokitan lizarrak tximistetatik babesteko onak zirela pentsatzen zuten; horregatik, borda eta baserrien inguruan landatzen zituzten.

Eguzki-lorea, antzinako euskaldunentzat, eguzkiaren irudia zen; horregatik, haren lanak betetzen *zitu*en zenbaitetan. Lamiak, sorginak, deabruak eta bestelako jeinu gaiztoak, gauez ibiltzen zirenez, **bildu** egiten omen ziren eguzkia **irtete**an. Horregatik, eguzki-loreak ezartzen *zitu*zten etheen atarietan, eguzkitzat hartu eta izaki gaizto haiek guztiak barrura sartzen ausartuko ez zirelakoan.

Ohitura bereziak dira horiek, bitxi samarrak medikuntzaren eta teknologiaren aro praktiko honetan; baina, agian, guztiz eraginkorrak izan ziren gure birraitona-amonen garaian. Batek daki!

Ulermen galderak

1. Zergatik jartzen zuten etxe atarietan eguzki-lorea? (Puntu bat)
2. Zein izan da zuhaitz berezia euskaldunentzat? (Puntu bat)
3. Tximistetatik babesteko zein dira landare hoberenak? (Puntu bat)

Gramatika galderak

4. Aldaketa morfosintaktikoak baliatuz berridatzi azpimarraturik idatzitako perpausak, egitura honi jarraiki: (Puntu bat)

Basoz eta zelaiz jositako gure Euskal Herri honetan.-n...

Joan izeneko bi gizonek.-n bi gizonek

Tximistetatik babesteko.-n.

Barrura sartzen ausartuko ez zirelakoan. Ustez.....

5. Beltz nabarmenez agertzen diren hitzen sinonimo bana eman: *bildu, irteteak, zabaltzen, ataria* (Puntu bat)

6. Jar itzazu lehen aldian eta orain aldian testuan ateratzen diren aditz hauek: *dute, zenekien, zaitu, zituen, zituzten* (Puntu bat).

7. **Idazketa** Erabiltzen al dute zure etxean sendabelarrik? Zertarako? Zein da gehien gustatzen zaizuna? Gisa honetako zein ohitura eta tradizio gordetzen dira zure herri eta inguruetan?. Idatz ezazu honi buruz 20 lerro gutxienez (4 puntu)

UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBA (A eredua)
EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (B aukera)
2007/2008 IKASTAROA

ARGIBIDEAK:

Proposatzen diren bi azterketa hauetatik (A eta B) bat aukeratu eta galdera guztiak egin.

Galdera bakoitzaren bukaeran, lor daitekeen puntuazio gorena adierazten da.

Txokolatea kakaotik ateratzen da, eta kakaoa, berriz, kakao arbolatik. Maien eta azteken elezaharren arabera, Quetzalcoalt jainkoak beste jainkoei lapurtu zien, gizakiei emateko. Horregatik, kakao-arbolaren izen zientifikoak (theoboma) <<jainkoen **elikagaia**>> esan nahi du. Kakaoaren haziek edo aleek balio handia zuten maientzat eta aztekentzat, hainbestekoa ezen diru *gisa* erabiltzen zituzten. Edari bat egiteko ere erabiltzen zituzten, *xocolatl* izeneko, eta **ongailuak** eta bizigarriak botatzen zizkieten; hala nola, piperrausa eta piperrina.

Txokolateak halako misterio-kutsu bat izan du beti. XVI. eta XVII. mendeetan, Espainiako fraideek soilik ezagutzen zuten sekretua zen. *Sasoi* hartan, maiek eta aztekek erabilitakoez beste osagai batzuk erabiltzen ziren txokolatea egiteko; hala nola, azukrea edo ezti. XVIII. mendean, botiken orotariko txokolate **sendagarriak** zeuden salgai; sabela libratzeko txokolate berezia, pozoiauren aurkakoa, *okela*-estraktuduna, haurrentzat eta *gaixoentzat*...

Txokolatea era askotan hartu izan den elikagaia da. Hasieran, eta mende askotan, edatekoa zen soilik; frantsesei, esate baterako, mehe gustatzen zitzairen, eta espainiarrei, berriz, lodi. XIX. mendean tableta sortu zen: txokolate beltza, esneduna, fruitu lehorduna, zuria...

Haatik, txokolatea jateko era bitxiak oraintsu azaldu dira. Genoako jatetxe batean, esate baterako, kafearekin batera, zigarro itxura duen txokolatina bat ateratzen dute. Eta zer du berezia txokolatina horrek? Bada, habanar zigarro baten kea sartu diotela barruan. Zigarro gustua duen txokolatea. Afa!

Txokolatearen arrakasta ez da daukan zapore gozoaren ondorio hutsa, osasunean duen eragin onaren emaitza ere bada. Zenbait zientzialariren ustetan, txokolatearen zenbait substantziak **zoriontasuna** eragiten dute. A zer aurkikuntza!

Txokolate gehiegi jaten ez baduzu, eta elikadura orekatu baten *barruan* hartuta, ez duzu zertan loditu. Gainera, ez dizu txantxarrik sortuko, jan ostean hortzak ongi garbitzen badituzu.

Gaur egun, txokolatea oso garrantzitsua da. Izan ere, txokolatearen eta haren historiaren museoak daude...

...eta luxuzko postreak egiteko ere erabiltzen da; hala nola, txokolatezko irudi ikusgarriak eta Pazko arrautzak.

Galderak

1. Zein da kakao-arbolaren izen zientifikoa? Zer esan nahi du? (Puntu bat)
2. Zertarako erabiltzen zuten maiek eta aztekek kakaoa? (Puntu bat)
3. Testuaren arabera, zein dira txokolatearen dohain nagusiak? (Puntu bat)
4. Aldaketa morfosintaktikoak baliatuz berridatzi azpimarraturik idatzitako perpausak, egitura honi jarraiki: (Puntu bat)

Ez duzu zertan loditu. _____ zergatik _____
Fraideek soilik ezagutzen zuten sekretua zen. _____ -tako _____
Zenbait zientzialariren ustetan. _____ -z.
Hortzak ongi garbitzen badituzu. _____ -z gero

5. Letra etzanean agertzen diren hitzen sinonimo bana eman: *gisa, sasoi, okela, gaixoentzat, barruan* (Puntu bat)
6. Egin ezazu esaldi bana testuko hitz atzizkidun horiek erabiliz. Hona hitzak: *elikagaia, ongailua, sendagarria, zoriontasuna*. (Puntu bat).

Idazlana

Idatz ezazu zure gustuko janariei buruz. Zergatik gustatzen zaizkizu elikagai horiek eta ez bertze batzuek?, noiz jaten dituzu?, non prestatzen dute hoberen?. Jaki gozoak ala gaziak dituzu gustokoago?. Idatz ezazu honi buruz 20 lerro gutxienez (4 puntu).